

# LAPURDIKO EUSKAL DANTZAK



Txapela loreekin

Zinta arrosa, ubela edo gorria

Atorra eta galtza zuriak

Zinta ubela edo gorria

Gona eta atorra zuria kolore batzuekin

Lapurdiko euskal dantza desberdinak aurkeztuko dira artikulu honetan.

Lapurdiko lau dantza aurkeztuak izanen dira:

\*Axuri beltza: axuri beltza borobilean dantzatzen da gutxienez bi jenderekin.

Axuri beltzaren kantua, kantu herrikoi batetik hartua izan da.



\*Fandango: fandangoa borobilean dantzatzen da, hastapenean eta bukaeran parez pare dira binaka. Ez da tresnarik erabiltzen.



\*Arin arin: arin arinan ez dira beti hastapeneko lekuan egoten. Bi gutxienez izan behar da.

Dantza hori biziki polita da ikustea eta arin arin desberdinak badira .



\*Zazpi jauziak: zazpi jauzietan borobilean dira. Usu heldu diren pausuak dira: erdizka, jauzi eta dobla. Bukatzeko entresatak egin behar dira.



Lapurdiko pertsonaiak hunkituak direnak dira : irakasleak eta ikasleak.

Dantza mota berri bat ikasten da : antzerkiak egiten dira, ikusgarriak...eta horretarako jantzi eta zapata bereziak janzten dituzte.

Gertakaria urtero egiten dena Dantzari Ttiki eguna da. Probintzi guziak biltzen dira maiatzean Dantzari Ttiki ospatzeko. Euskal-Herriko herri guzietan iragaten ahal da. Festa horren hastapenean dantza talde guziak biltzen dira desfile bat egiteko. Ondoren musika hasten da eta dantzariak dantzak erakusten dituzte. Eguerditan piknika jaten dute. Arratsaldean helduek dantza tradizionalak aurkezten dituzte.

Gai hori hautatu dugu dantza maite dugulako eta egiten dugulako. Espero dugu Lapurdiko euskal dantzei buruz gehiago jakin duzuela